

3. eranskina. Kontratuaren adibidea.

Kontratu hau.....(r)en eta(r)en
Ikaslearen izen-abizenak Irakaslearen izen-abizenak

artekoa da, eta.....(e)tik.....(e)ra
bitartean egongo da indarrean.

Nik,.....(e)k, hitz ematen dut,
Ikaslearen izen-abizenak

- Taldean adostutako zereginak arduraz beteko ditudala, ezarritako epean eta lanaren kalitatea zainduz. Jarraian zerrendatu dira, niri dagozkidan zereginak.

- Ikaskideekin eta irakaslearekin errespetuz arituko naizela uneoro.
- Guztien iritziak entzun eta errespetatuko ditudala.
- Ikastetxeko bizikidetza arauak errespetatuko ditudala.
- Erabilitako materiala (ordenagailua, mugikorra...) egokiro erabiliko dudu, behar bezala zainduz
- Egile-eskubideak eta lizentziak errespetatuko ditudala.

Nik,.....(e)k, hitz ematen dut,
Irakaslearen izen-abizenak

- Ikasleekin errespetuz arituko naizela uneoro.
- Guztien iritziak entzun eta errespetatuko ditudala.
- Guztien zalantzak entzun eta argitzen saiatuko naizela.

Kontratua bete ezean honako ondorioak izango ditu:

1. Kontratua apurtu duena ikaslea bada,
 - Arina denean (zeregina egiteko epea ez errespetatzea, adibidez) kalifikazio-irizpideen Jarrera atalean 0 puntu jasoko ditu, baina proiektuarekin aurrera jarraitu ahal izango du kontratu honetan jasotakoa errespetatuz.
 - Larria denean (ikaskideak iraintzea, materiala apurtzea, edo kontratuaren apurketa arinak behin baino gehiagotan errepikatzen direnean, adibidez) kontratua amaitutzat joko da, eta irakasleak bakarkako lana jarriko dio ikasleari. Bakarkako lanean helburuak gainditzen badira kalifikazioan gehienez ere Nahikoa (5) jasoko du.
2. Kontratua apurtu duena irakaslea bada,
 - Ikasketa buruari jakinaraziko zaio eta proiektua beste irakasle baten ardurapean amaitzeko aukera aztertuko da.

Eta hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak sor ditzan, izenpetzen dugu kontratu hau:

.....(e)n, 202...koren(e)an.

Ikaslearen sinadura

Irakaslearen sinadura